

A stylized illustration in shades of blue and red depicting a group of people in a meeting or discussion. The figures are simplified, with some wearing headsets or holding devices. The background is a dark blue gradient. Two thick, wavy lines, one red and one blue, sweep across the lower half of the image.

# Eragin politikorako eredu dokumentua

## Documento marco para la incidencia política



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

Financia / Diru laguntzailea:



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

Edita / Argitaratzailea:



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

#### Araba

---

Casa de Asociaciones Simone de Beauvoir  
San Ignacio de Loyola 8 - 3<sup>º</sup> - oficina 1  
01001 Vitoria-Gasteiz  
Tel./Fax: 945 280 745  
araba@ongdeuskadi.org

#### Bizkaia

---

Alameda Urquijo 30, Galerías Urquijo, ofic. 8  
48010 Bilbao  
Tel./Fax: 944 150 300  
bizkaia@ongdeuskadi.org

#### Gipuzkoa

---

Avenida Pasajes San Pedro 13, trasera  
20017 Donostia  
Tel./Fax: 943 463 526  
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

coordinadora@ongdeuskadi.org  
www.ongdeuskadi.org

# Nazioarteko lankidetzaren printzipioak



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACION PARA  
EL DESARROLLO

**GGKEentzat** funtsezkoa da egiten duten lana etengabe hausnartu eta ebaluatzea eta beren jardunbideak markatu dituzten oinarritzko printzipio komunetatik ez urruntzea. Printzipio horiek dira GGKEen misioa oinarritik zuzentzen duten arau eta ideiak, eta gehienetan, 90eko hamarkadaren amaiera aldera sortutako jokabide ko-deetan islatuta daude.

Denboran zehar, testuinguru historikoez eman diote garapen kontzeptuari gaur egungo esanahia eta horietatik definitu dituzte lankidetzaren politikak ere. Azken urteotan, ordea, aldaketa nabarmenak eman dira esparru hauetan eta munduko testuinguru gero eta konplexuagoa denez, ezinbestekoa da argitzea eta definitzea zein garapenaren alde eta zein motatako lankidetzarekin ari garen lanean.

## Giza garapen iraunkorra

Giza garapena esaten zaio beren aukerak eta abaguneak zabaltzen dituzten pertsonen gaitasunak hedatzeko prozesuari<sup>1</sup>. Hori lortzeko, pertsonak gai izan behar dute:

- Beren bizimodua askatasunez aukeratzeko.
- Bizitza erabat humanoa bizitzeko, pertsona den aldetik datxezkion dimentsio guztietan.
- Ongizatera iristeko aukera gehiagoren bidez eta ez hazkunde ekonomiko hutsaren bitartez. Azkeneko honek, ingurumenaren oreka arriskuan jarri eta desberdintasun zein bazterkeria sozial gero eta handiagoa sortzen ditu.

Horrela bada, giza garapena iraunkorra izango da gizakiei, hots bai emakumei eta bai gizonei, bizitzeko aukerak sortzen dizkien neurrian, beren gaitasun guztiak garatu ditzaten eta etorkizuneko belaunaldientzat gorde dezaten baliabideak erabiltzeko aukera, ingurumen naturala eta kultur ondarea.

Benetako aukera gabezia hertsiki lotuta dago produkzio baliabideak erabiltzeko aukera desberdin eta mugatuekin eta baita ere jendeak erakunde sozial eta politikoetan daukan parte-hartze eskasarekin. Honen jatorriak ere desberdinak dira: jabetza eskuratzeko mugapenak, diru-sarrera eta kontsumo baxuak, aukera sozial, politiko eta laborar mugatuak, behar adinakoak ez diren lorpenak hezkuntzan, osasunean, nutrizioan, baliabide naturalak eskuratzeko, erabiltzeko nahiz kontrolatzeko aukeretan eta garapenaren beste hainbat arlotan<sup>2</sup>. Giza pobreziaaren aurkako borrokaren ikuspegia aldatu egin da 80ko hamarkadaren amaieratik hasita: ondasunen produkzioan oina-

<sup>1</sup> Giza Garapenari buruzko Txostena, Garapenerako Nazio Batuen Programa, 1990.

<sup>2</sup> Arriagada, Irma (2006), *Dimensiones de la pobreza y políticas desde una perspectiva de género*, CEPAL aldizkaria 85. alea, 101-113 orr.

rritutako hazkunde ekonomikoak dakarren garapenetik, pertsonen gaitasunetan oinarritutako batera pasa da<sup>3</sup>.

Benetako aukera gabeziak eta baliabideetara edota botere instantzietara iristeko berdintasun ezak halaber berekin dakarte genero desberdintasuna. Genero ikuspegiak gizonen eta emakumeen arteko desorekak konpontzeko beharra planteatzen du, pertsonak lehenesten dituen garapenaren zati bezala.

Giza garapenaren pentsamendu horrek garrantzi handia ematen die bere-bereak dituen hiru alderdi transbertsalei:

- Genero berdintasunari, hots, garapen osoa izateko beharrezko dituzten baliabideak eta boterea eskuratzeko emakume eta gizonen arteko berdintasunari.
- Ingurumena errespetatzeari. Ezein ekintzak ezin du ingurumena kaltetu eta beti errespetatu behar dira ingurune naturalaren kontserbazioa eta baliabideen erabilpen iraunkorra.
- Giza eskubide guztiak sustatzeari. Lehen belaunaldikoak (politiko eta zibilak), bigarren belaunaldikoak (ekonomiko, sozial eta kulturalak) eta hirugarren belaunaldikoak (garapena, bakea eta ingurumena izateko eskubideak<sup>4</sup>).

## Lankidetzaren eraldatzailea

Lankidetzak gizaki berdinen arteko trukerako tresna izan beharko luke. Horrek elkarren artekoa eta guztiontzat aberasgarria izan behar du, giza garapena bultzatu behar du eta munduko pobrezia desagerraraztea lortu behar du. Lankidetzak hainbat helburu izan ditzake eta horregatik, honako printzipioetan oinarritutako lankidetzaren aldeko apustua egin nahi dugu:

- Gizakiaren aitortza dimentsio indibidual nahiz kolektiboan. Izaki libre eta arduratsua den aldetik, eskubide eta obligazioen jabe denez gero, bera da garapenerako lankidetzako politiken protagonista eta azken xedea.
- Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustapenean, genero berdintasunean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritua.
- Etengabeko egonkortasun eta aurreikuspen konpromisoa behar da, funts bilketa zein transferentziatik edo ekintza puntual eta zatikatuetatik haratago doana. Bidegabekeriak, desberdintasunak eta gatazkak eraldatzeko balio behar du.

<sup>3</sup> Gaitasunen ikuspegiari ari da (Amartya Sen), ikuspegi hori giza garapenaren kontzeptualizazioaren oinarria izan zelako.

<sup>4</sup> Gómez Isa, Felipe (2000), *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo* (2000), Giza eskubideak: kontzeptua eta bilakaera, <http://dicc.hegoa.efaber.net/listar/mostrat/61>-n ikusgai.

- Autokritika eta salaketa lanak garatu behar ditu egungo nazioko zein nazioarte-ko jarraibide ekonomiko, politiko eta sozialak aldatzeko eskatuz, eta gizaki guztioi bitzta duina emango diguten beste batzuk aldarrikatuz. Funtsezkoa da sentibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren bitartez jarrerak eta pentsaerak eraldatzeko gaitasuna lantzea, horrela jakingo dugulako zeintzuk diren pobrezia-riaren benetako kausak eta harreman ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak.
- Epe luzerako prozesu iraunkorrak sortu behar ditu, emaitza neurgarri eta kuantifikagarriak eman behar ditu ikuspuntu kualitatibo nahiz kuantitatibotik, ekintza bakoitzak izan duen eragina albait gehien handiagotuz.
- Genero berdintasunarekin konprometituta egon behar du. Hau da, lankidetzak abiapuntutzat hartu behar du giza garapenerako ezinbestekoa dela emakumeen parte-hartze aktiboa, bazterkeriarik gabea eta gizonetikiko berdintasun baldintzak errespetatuz.
- Elkarrekikotasunean, elkarrizketan eta parte-hartzean oinarritutako lankidetzaren aldeko apustua egiten dugu, inposaketak eta ikuspegi eurozentriko nahiz androzentrikoak saihesteko eta trukerako eragile desberdinen arteko parte-hartze espazioak sortzeko, koordinaziorako eta irizpide zein politikak definitzeko (ad. lankidetzak kontseiluak, lantaldeak, sareak, etab.).
- Erantzunkidetasuna, gizarte osoaren konpromisoa eta eragile sozial guztien parte-hartzea eta koordinazioa sustatuz, kontuan harturik horietako bakoitzak daukan papera.
- Lankidetzak gizarte zibileko pertsona eta erakundeak errespetatu behar ditu beren eskubideak eta askatasun legítimoak erabiltzen dituztenean, beti ere horien lidergoa onartuz. Azken finean, emakume, gizon eta erakundeek hartu behar dituzte erabakiak, protagonista bihurtuz garapen agenda egiterakoan.
- Garapenerako lankidetzaren helburua ez da (ez zuzenean, ez eta zeharka) prozesuetan menpekotasuna sortzea eta ez du sustapen politikorik edo ekonomikorik egingo kanpoan (doakotasun printzipioa).
- Lankidetzak koherentea izan behar du, eragileek ekintza solidarioekin bat datozen ekimenak adostu behar dituzte, kontraesanik gabe.
- Lankidetzak gardena izan behar du, bai baliabideen erabilpenean eta baita ere muga gabeko informazio trukean.